

Mentoreentzako informazioa



Giza-baliabide honek pertsonen arteko harremana sustatzen du. Pertsona batzuek, borondatez, gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden beste pertsona batzuei banakako laguntza eskaintzen diete.

URRETXINDORRA MENTORETZA

Honakoa mentoreek (Unibertsitateko edo Goi Mailako ikasleek) mentore-hartzaileak (10 eta 14 urte bitarteko etorkin jatorriko umeak) laguntzeko proiektua da. Hala, haien ongizate pertsonala, emozionala eta soziala hobetzeko, autoestimua indartuz, baita norbanakoaren trebetasunak eta harremanetarako gaitasuna garatzeko, esperientzia berriak edukitzeko eta bizi diren tokietan espazio berriak ezagutzeko ere.

Metodologia honetako **KONTZEPTU GAKOAK** honakoak dira:

LAGUNTZA

Beste pertsona errespetuz gidatu, aurreiritzirik gabe, haren interes eta beharrei erantzunez. Entzun, bideratu, harekin enpatizatu, konstruktiboki kritikatu, esperientzia eta prestasuna eskaini, haren alboan joan eta ez aurrean.

BOLUNTARIOTZA

Norbaiten ondoan borondatez egon, pertsona ezagutzeko helburu bakarrekin, beste ezer ez espero gabe. Lotura sortzeko ezinbestekoa da konfiantzazko emozio-giroa egotea.

KONFIANTZA

Horretarako denbora behar da, mentore eta mentore-hartzailearen arteko eraikitze eta ezagutze prozesuaren bidez gauzatuko baita.

KONFIDENTZIALITASUNA

Adostutako harreman horretan gertatzen dena konfidentziala da

ERREFERENTE POSITIBOA

Behin bien arteko lotura gauzatuta, mentorea laguntzen duen mentore-hartzailearentzat erreferente edo eredu positiboa bilakatuko da. Ardura nabarmena bereganatuko du.

FORMALITATERIK EZ

Harremana modu naturalean, erosotasunez eta espontaneotasunez gauzatzea bultzatzen du.

ELKARREKIKO ONURA

Bi aldeentzako harreman onuragarria da oso.

MUGAK

Harremanean mugak ezartzea garrantzitsua da. Baita mentoretzak giza-baliabide gisa dituen mugak argi edukitzea ere.

Zertan da **ONURAGARRIA**?

- ✚ Gizarteko errealitate berriak gertutik ezagutuko dituzu.
- ✚ Zeure kulturarteko gaitasunak sendotuko dituzu eta aurreritziak zalantzan jarri.
- ✚ Pertsonen arteko komunikazio-gaitasuna hobetuko duzu.
- ✚ Gatazkak bideratzeko eta konpontzeko trebetasuna garatuko duzu.
- ✚ Zeure konfort egoeratik aterako zara.

Eta **UMEARENTZAT** zertarako da **ONURAGARRIA**?

- ✚ Autoestimua indartzeko
- ✚ Maila pertsonal, emozional eta sozialean garatzeko
- ✚ Hizkuntza-gaitasuna hobetzeko
- ✚ Ikasten jarrai dezan motibatzeke

GOGORATU!

- ✚ Mentoretza harremanak ez du familia ordezkutzen, ezta umearen harreman sarea ere.
- ✚ Zenbaitetan umea zaurgarritasun egoeran egon daiteke eta horrek zuregan ezintasuna eragin dezake. Ez etsi. Egiten ari zaren hori bada zerbait.
- ✚ Mentoretza harremana umerari bere bizitzako une zehatz batean laguntzeko da. Ez duzu inor salbatu behar.

BALDINTZAK

- Unibertsitateko edo goi mailako ikaslea izan, 18 eta 30 urte bitartekoa.
- Ikasturtean zehar astero arratsalde bat libre eduki.
- Gogoia eta ilusioa eduki. Ez da alde zuzeneko esperientziarik behar aisialdian edo esparru sozialean.
- Entzuteko jarrera izan eta esleitutako umeari kasu egin.

KONPROMISOAK

- Formazio saioetara etorri.
- Umearekin duzun asteroko hitzorduetara joan.
- Taldeko eta banakako tutoretzatan parte hartu.
- Segimendu Aplikazioa egunean eraman.
- Ikasturte hasierako eta itxierako jaialdietan parte hartu.
- SOS Arrazakeriako lan-taldearekin komunikazio naturala eta erraza izan.
- Sexu abusuen aurrekari penalen ziurtagiria eskatu eta entregatu (adingabeekin lan egiteko legez derrigorrezkoa baita)

ESKAITZEN DUGU

- Proiektuaren hasieran berriazko formazioa ondorengo gaien inguruan: kulturarteko gaitasuna, generoa eta sexualitatea, IKTen erabilera etiko eta arduratsua, adimen emozionala, duelua eta banantzea.
- Banakako eta etengabeko segimendua eta aholkularitza.
- Banakako eta taldeko tutoretzak.
- Mentoretza gauzatzeko Pocket Money.
- Kredituen baliozkotzea